Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA
CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

## LEHIAKETA PUBLIKOA, BITARTEKO IRAKASLE KONTRATATUEN KONTRATUAK ADJUDIKATZEKO EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEAN

Euskal Unibertsitate Sistemaren otsailaren 25eko 3/2004 Legeak, bere 25. artikuluan, honako hau esaten du: Lanpostuen zerrendetako lanposturen bat hutsik gelditzen bada, bai heriotzaren bat gertatu delako, bai lizentzia izateagatik zein legean aurreikusitako beste edozein arrazoirengatik norbait kanpoan delako, eta lanpostu hori atxikita dagoen jakintza arloko irakasleek irakaskuntzako premiei erantzun ezin badiete, unibertsitateak ordezkoak kontratatu ahal izango ditu, behar den beste denborarako, aplikatzekoa den lan kontratuarekin bat etorriz, betiere plantillen taxuketa orok eskatzen duen arrazionaltasuna, eraginkortasuna eta eragimena kontuan hartuta.

Hori guztia kontuan hartuta, Euskal Herriko Unibertsitateak bitarteko irakasle kontratatuen lehiaketa publikorako deia egin du.

Kontratuko klausulak dira Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboan eta UPV/EHUko irakasle eta ikertzaileen araubideari buruzko martxoaren 4ko 40/2008 Dekretuan zehaztutakoak.

1.- Baldintzak

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek lehiaketan parte hartzeko baldintza orokorrak eta baldintza akademiko zehatzak bete beharko dituzte eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik, eta kontratua sinatu arte mantendu. **BALDINTZAK** honako hauek dira:

1.- OROKORRAK

1.- Hamasei urte beteta izatea.

2.- Zigor espedientearen bidez Estatuko Administrazioan, Erkidego Autonomoko Administrazioan edo Erakunde edo Udal Administrazioan, zerbitzutik aldendua ez egotea edo funtzio publikoak betetzeko gaitasunik gabe ez egotea. Espainiar herritartasuna ez izatekotan bere Estatuan funtzio publikoan sartzea eragozten duen diziplina zehapenik edo kondena penalik ez izatea.

## CONCURSO PÚBLICO PARA LA ADJUDICACION DE CONTRATOS DE PROFESORADO CONTRATADO INTERINO EN LA UNIVERSIDAD DEL PAÍS VASCO

La Ley 3/2004, de 25 febrero, del Sistema Universitario Vasco, en su artículo 25, establece que en los supuestos de vacante en las relaciones de puestos de trabajo producida por fallecimiento u otras causas, o de ausencia por licencias u otras causas legalmente previstas, cuando las necesidades de docencia no pudieran ser atendidas por el profesorado del área de conocimiento a que esté adscrito el puesto, la universidad podrá contratar sustitutas o sustitutos, por el tiempo preciso, conforme al tipo de contrato laboral de aplicación, atendiendo siempre a las exigencias de racionalidad, eficacia y eficiencia que todo diseño de plantilla requiere.

De acuerdo con esto la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea convoca concurso público de Profesorado Contratados Interinos.

Las cláusulas contractuales son las recogidas en el II Convenio Colectivo del Personal Docente e Investigador laboral y en el Decreto 40/2008, de 4 de marzo, sobre régimen del personal docente e investigador de la UPV/ EHU.

1.- Requisitos.

Quienes deseen tomar parte en el concurso deberán cumplir los siguientes **REQUISITOS** que deberán estar referidos siempre a la fecha de expiración del plazo fijado para solicitar la participación en el concurso y mantenerse hasta la fecha de formalización del contrato**:**

1.- DE CARÁCTER GENERAL:

1.- Tener cumplidos dieciséis años.

2.- No haber sido separada o separado, mediante expediente disciplinario, del servicio de la Administración del Estado o de la Administración Autónoma, Institucional o Local, ni hallarse inhabilitada o inhabilitado para el ejercicio de funciones públicas. En el caso de no poseer nacionalidad española no estar sometida o sometido a sanción disciplinaria o condena penal que impida, en su Estado, el acceso a la función pública.

3.- Unibertsitateko irakaslearen lana betetzea eragozten duen gaixotasun edo akats fisiko edo psikikorik ez izatea.

3.- No padecer enfermedad ni defecto físico o psíquico que impida el desempeño de las funciones correspondientes a Profesorado de Universidad.

4.- Desgaitasuna daukaten pertsonentzat gordetako plazen kasuan (ikusi oharrak atala plazen deskripzioan), desgaitasuna egiaztatu beharko da, eta, bestalde, egiaztatu beharko da ere desgaitasuna bateragarria dela lanpostuaren eginkizunekin.

*4.- En el caso de plazas reservadas a personal con discapacidad (ver apartado observaciones en la descripción de las plazas), las personas aspirantes deberán acreditar la discapacidad así como la compatibilidad con el desarrollo de las tareas y funciones.*

Desgaitasuna duten pertsonatzat joko dira Desgaitasuna daukaten pertsonen eskubideei eta haien inklusio sozialari buruzko Lege Orokorraren testu bateginean hala definitutakoak /1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 29koa, 4.art), hau da, administrazioko organo eskudunak %33ko desgaitasuna edo handiagoa aitortu dienak

*A tal efecto, se entenderá por personas con discapacidad las definidas en el artículo 4 del Real Decreto Legsilativo 1/2013, de 29 de noviembre, por el qu ese aprueba el Texto Refundido de la Ley General de derechos de las personas con discapacidad y de su inclusión social, es decir, aquellas a quienes se les haya reconocido un grado de discapacidad de igual o superior al 33 por 100 por el órgano competente de la Administración*

**5.- Curriculum-eskaria behar bezala beteta aurkeztea.**

**5.- Presentar Instancia-currículum debidamente formalizada.**

**6.- Lehiaketa bakoitzean parte hartzeko tasak ordaintzea.**

**6.- Abonar las tasas de participación.**

**Eskariak aurkezteko epean zenbateko horiek bere osotasunean ordaindu ez dituzten lehiakide guztiak lehiaketatik kanpo geratuko dira, eta ez da beste eperik zabalduko tasok ordaintzeko edo falta dena osatzeko.**

**Serán excluidas o excluidos todas aquellas y todos aquellos aspirantes que no hayan abonado las precitadas cantidades, en su totalidad, dentro del plazo habilitado para la presentación de instancias, no concediéndose plazo alguno adicional para el abono o complementación, de las mismas.**

2.- BALDINTZA AKADEMIKOAK

2.- DE CARÁCTER ACADÉMICO:

**1.- Kontratu bakoitzerako eskatutako titulazioa izatea.**

**1.- Estar en posesión del título exigido en cada caso para cada contrato.**

**2.- Kontratu elebidunetarako lehiakideek Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasuna izatea. Gaitasun hori egiaztatu beharko dute Euskarako errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako erabakiak ezarritako moduan (uztailaren 11ko EHAA), Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko C1 mailarekin parekatzen diren tituluak aurkeztuta (2010eko azaroaren 15eko EHAA) edo apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuak, euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez**

**2.- En los contratos bilingües: tener la capacidad para la docencia en lengua vasca, capacidad que se acreditará conforme a lo establecido en la Resolución del Vicerrector de Euskera de 5 de junio de 2002 (BOPV de 11 de julio) o con la aportación de títulos equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (BOPV de 15 de noviembre de 2010) o conforme a lo establecido en el Decreto 47/2012, de 3 abril, de reconocimiento de los estudios oficiales realizados en euskera y de exención de la acreditación con títulos y certificaciones**

**egiaztatzetik salbuestekoak, ezarritako moduan.**

**lingüísticas en euskera.**

3.- Ofiziala ez den hizkuntza baten jakintza maila egiaztatu behar den kontratuetarako, irakaskuntza hizkuntza horretan emateko gaitasuna izan beharko dute lehiakideek eta gaitasun hori egiaztatu beharko dute Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2010eko ekainaren 24an onartutako erabakiari jarraituz (ofizialak ez diren hizkuntzatan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruzko araudia onartzen duen erabakia, 2010/12/2ko EHAAn argitaratua) eta 2012ko martxoaren 8ko erabakiaren eranskinean, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, ofizialak ez diren hizkuntzen baliokidetzari buruzkoa.

3.- En los contratos con el requisito de acreditar el conocimiento de un idioma no oficial será necesario tener la capacidad para la docencia en dicho idioma, capacidad que se acreditará conforme a lo establecido en el Acuerdo, de 24 de junio de 2010, del Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea por el que se aprueba la Normativa sobre la obtención de la Acreditación para impartir docencia en idiomas no oficiales (BOPV 2-12-2010) y en el Anexo de la Resolución de 8 de marzo de 2012, del rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Univertsitateko, sobre equivalencia de lenguas no oficiales.

Taula hau eta bere eranskina, 2017ko maiatzaren 22koa UPV/EHUko Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko errketoreordearena, hizkuntza ez-ofizialen boliokidetzea , eguneratu dira.

Esta tabla , así como su Anexo, han sido actualizados por la Resolución del 22 de mayo de 2017, de la Vicerrectora de Coordinación y Relaciones Internacionales de la UPV/EHU.

4.- Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko irakasguneetan aritzeko kontratuen kasuan, irakasgai klinikoak emateko, espezialista titulua izan beharko dute lehiakideek eta lanean ari kasuan kasuko ospitalean, kontratuari lotutako irakats jarduera izango baita irakasgai kliniko horiek ematea ospitaleko zeregin asistentzialak aurrera eramaten dituzten bitartean. Kontratua egin ondoren langileak ospitaleko lana egiteari utziko balio, kontratua bertan behera geratuko litzateke.

4.- En aquellos contratos con destino en Unidades Docentes de la Facultad de Medicina y Enfermeria que tengan por objeto la impartición de asignaturas clínicas estar en posesión del título de especialista y estar prestando servicios en el Hospital correspondiente, dado que la actividad docente objeto del contrato consiste precisamente en impartir dichas asignaturas clínicas en el desarrollo de su actividad asistencial en dicho hospital. En el supuesto de que una vez formalizado el contrato la trabajadora u el trabajador dejara de prestar servicios en el Hospital, el contrato será resuelto.

Lehiaketan parte hartzeko baldintzak eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik eduki beharko dira beteta.

La concurrencia de los requisitos para participar en el concurso, deberán estar referidas siempre a la fecha de expiración del plazo fijado para solicitar la participación en el concurso.

2.- Dokumentazioa

2.- Documentación.

Lehiaketan parte hartu nahi dutenek eskaria igorriko diote Euskal Herriko Unibertsitateko Irakasle-Ikertzaileen Arloko errektoreordeari. Horretarako, **DOKUMENTU** hauek aurkeztuko dituzte:

Quienes deseen tomar parte en el concurso formularán la correspondiente solicitud remitida al Ilmo. Sr. Vicerrector de Personal Docente e Investigador de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, acompañada de la siguiente **DOCUMENTACIÓN**:

**1.- Curriculum-eskaria behar bezala beteta.**

**2.- Titulu akademikoaren fotokopia, edo, hau ez izatekotan, titulua igortzeko eskubideak ordaindu ondoren bere ordez emandako egiaztagiriaren fotokopia.**
Plaza bakoitzerako eskatzen den titulazioa atzerrian lortu bada, Espainian homologatuta egon beharko da. Homologazio hori Titulu, Baliokidetza eta Homologazioen Azpizuzendaritza Nagusiak egindako egiaztagiriaren bidez egiaztatuko da. Ez da nahikoa izango homologaziorako eskaria egin dela egiaztatzen duten agiriak aurkeztea.

Era berean, Europako Batasuna osatzen duten herrietako herritarrek elkarteko kide den beste edozein herritan lortu badute titulua, herri horretan emandako titulua onartzen duen Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Agindua erantsi beharko diote tituluari, hau guztia 1995eko urtarrilaren 23ko Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren Aginduaren bederatzigarren atalaren arabera (urtarrilaren 28ko Estatuko Buletin Ofiziala).

**3.- NANaren edo pasaportearen fotokopia.**

**4.- Tasak ordaindu izanaren egiaztagiri originala.**
Lehiakideek frogatu beharko dute lehiaketa bakoitzean parte hartzeko tasak ordaindu dituztela, eta horretarako jatorrizko ordainagiria aurkeztu beharko dute eskariarekin batera. Hauek dira ordaindu beharreko tasak:

.- **11,00** euro, gutxienez lizentziatu, arkitekto edo goi mailako ingeniariaren titulazioa eskatzen den plazetarako.

.- **9,18** euro, gutxienez unibertsitateko diplomatua, arkitekto teknikoa edo ingeniari teknikoa izatea eskatzen den plazetarako.

Eskubideak ordaintzeko ondoko kontu korrontean sartu beharko da dirua, edo egin transferentziak:

Kutxabank
UPV/EHUko Irakasleen Errektoreordetza - Irakasleen lehiaketen tasak
IBAN zk: ES73 2095 0292 94 3239002233

**1.- Instancia-curriculum debidamente formalizada.**

**2.- Fotocopia del título académico o, en su defecto, fotocopia de la certificación supletoria del mismo que se emite una vez que se han abonado los derechos para su expedición.**
En el caso de que la titulación exigida para cada una de las plazas se haya obtenido en el extranjero deberá haberse concedido la correspondiente homologación en España, que se acreditará mediante credencial expedida por la Subdirección General de Títulos, Convalidaciones y Homologaciones, no siendo suficiente la mera presentación de documentos que acrediten haber solicitado la homologación.
Asimismo, los títulos obtenidos por nacionales de cualquier estado miembro de la Unión Europea en otros Estados miembros, deberán estar acompañados por la correspondiente Orden del Ministerio de Educación y Ciencia de reconocimiento del titulo expedido en dichos Estados, de acuerdo con lo previsto en el apartado noveno de la Orden del Ministerio de Educación y Ciencia de 23 de enero de 1995 (Boletín Oficial del Estado del 28).

**3.- Fotocopia simple del DNI o pasaporte**

**4.- Resguardo original del abono de tasas.**

Las y los aspirantes deberán justificar, mediante resguardo original que deberá unirse a la solicitud que se presente para participar en el concurso, haber abonado, por cada una de las plazas que se soliciten, según se detalla a continuación y para cada caso, la cantidad de:
.- **11,00** euros, tratándose de plazas para las que se exija una titulación mínima de Licenciada o Licenciado, Arquitecta o Arquitecto o Ingeniera o Ingeniero Superior o grado.
.- **9,18** euros, tratándose de plazas para las que se exija una titulación mínima de Diplomada o Diplomado Universitaria o Universitario, Arquitecta o Arquitecto Técnico o Ingeniera o Ingeniero Técnico.
El pago de los derechos se efectuará mediante ingreso o transferencia bancaria a la cuenta corriente siguiente:
Kutxabank
UPV/EHU Vicerrectorado de Profesorado. Tasas Concursos Profesorado.
Número IBAN : ES73 2095 0292 94 3239002233

Izen-abizenak eta aurkezten deneko plazaren ordena zenbakia zehaztu beharko dira bertan. Bestela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena Legeko 16 artikuluan ezarririko edozein prozedura erabil daiteke.

Lehiakideek posta igorpenez edo igorpen telegrafikoz ordaintzen dutenean, helbide honetara zuzendu beharko dute: Lehiaketa Atala, posta kutxa: 1.397, Bilbo 48080.

Especificando el nombre, apellidos y número de orden de la plaza a la que concursa, o por cualquiera de los medios establecidos en el artículo 16 de la Ley del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Las y los concursantes que efectúen el pago mediante giro postal o telegráfico deberán dirigirlo a la Sección de Concursos, apartado de correos 1.397, 48080 Bilbao.

**5.- Kontratu elebidunetarako lehiakideek Euskal Herriko Unibertsitatean Euskaraz Irakasteko Gaitasun Agiria dutela egiaztatu beharko dute Euskarako errektoreordeak 2002ko ekainaren 5ean emandako erabakiari jarraituz (2002ko uztailaren 11ko EHAA). Bestela, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 mailaren pareko tituluak izan beharko dituzte (2010eko azaroaren 9ko EHAA).**

**5.- Las candidatas y los candidatos a contratos bilingües deberán presentar los documentos acreditativos de tener la capacidad para la docencia en la lengua vasca (Resolución del Vicerrector de Euskera de 5 de junio de 2002 publicada en el BOPV de 11 de julio) o con la aportación de títulos equivalentes al nivel C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las Lenguas (BOPV de 15 de noviembre de 2010).**

6.- Ofiziala ez den hizkuntza baten jakintza maila egiaztatu behar den kontratuetarako, irakaskuntza hizkuntza horretan emateko gaitasuna izan beharko dute lehiakideek eta gaitasun hori egiaztatu beharko dute Euskal Herriko Unibertsitateko Gobernu Kontseiluak 2010eko ekainaren 24an onartutako erabakiari jarraituz (ofizialak ez diren hizkuntzatan irakaskuntza eskaintzeko egiaztagiria eskuratzeari buruzko araudia onartzen duen erabakia, 2010/12/2ko EHAAn argitaratua) eta 2012ko martxoaren 8ko erabakiaren eranskinean, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko errektorearena, ofizialak ez diren hizkuntzen baliokidetzari buruzkoa.

6.- Las candidatas y los candidatos a contratos con el requisito de idioma no oficial acreditar la capacidad para la docencia en dicho idioma, conforme a lo establecido en el Acuerdo, de 24 de junio de 2010, del Consejo de Gobierno de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea por el que se aprueba la Normativa sobre la obtención de la Acreditación para impartir docencia en idiomas no oficiales (BOPV 2-12-2010) y en el Anexo de la Resolución de 8 de marzo de 2012, del rector de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Univertsitateko, sobre equivalencia de lenguas no oficiales.

**7.- Curriculumean aipaturiko merezimenduak egiaztatzen dituzten dokumentuen fotokopia soilak. Ez da inolaz ere jatorrizko agiririk erantsi behar, dokumentazio hori ez baita itzuliko.**

**7.- Fotocopia simple de todos aquellos documentos que acrediten los méritos alegados en el currículo, no debiendo en ningún caso adjuntarse originales pues tal documentación no será devuelta.**

**Irakaskuntzako esperientzia, oro har, honela egiaztatu beharko da:**

- **Euskal Herriko Unibertsitatean betetako zerbitzuak ez dira egiaztatu beharko, unibertsitateak berak erantsiko baititu agiriok.**
- **Irakaskuntza publikoan betetako zerbitzuak egiaztatzeko zerbitzuen orria aurkeztu beharko da, bai eta egiaztagiri bat ere irakatsitako gaiak zehaztuta.**
- **Irakaskuntza pribatuan betetako zerbitzuak egiaztatzeko lan kontratua aurkeztu behar da eta Gizarte Segurantzaren**

**La experiencia docente se acreditará, con carácter general, de la siguiente manera:**

- **No será necesario acreditar la servicios docentes prestados en la Universidad del País Vaso/Euskal Herriko Unibertsitatea, se adjuntarán por la propia administración de oficio.**
- **Los servicios docentes prestados en la enseñanza pública se acreditarán mediante hoja de servicios y certificación comprensiva de las materias impartidas.**
- **Los servicios docentes prestados en la enseñanza privada se acreditarán mediante contrato de trabajo y certificación expedida por**

**Diruzaintza Nagusiak emandako egiaztagiria bertan zehaztuta ikastegiaren izena (enpresa) eta altan egondako aldia. Egiaztagiri bat ere aurkeztu beharko da irakatsi diren gaiak zeintzuk izan diren zehaztuta.**

**Laneko esperientzia egiaztatzeko, oro har, honakoa agiriak aurkeztu beharko dira:**

- **Arlo pribatuan inoren kontura egindako lan esperientzia denean, kontratuaren kopia eta Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Nagusiaren egiaztagiria. Era berean, enpresaren egiaztagiria ere aurkeztu behar da lanpostua eta egindako zereginak zehaztuta. Jarduera profesionala inoren kontura arlo publikoan egiten denean, kasuan kasuko administrazioak emandako agiriaren bidez egiaztatuko da, zehaztuta lehiakideak zein lan mota egiten duen**
- **Norbere kontura egindako lan esperientzia egiaztatzeko zinpeko aitorpena, egindako lanak zehaztuta, eta Ogasunaren egiaztagiria, Jarduera Ekonomikoen Zergan alta emanda egondako aldia jasota. Horrez gain, egindako lanen egiaztagiriak ere aurkeztu beharko dira (BEZaren aitorpena, adibidez).**

**Eskariak aurkezteko epea bukatu ondoren, ez da beste eperik zabalduko merezimendu gehiago edo eskaeran adierazitakoen agiriak aurkezteko.**

3.- Eskariak aurkezteko epeak

Curriculum-eskariaren ereduak Errektoregoan eta campusetako errektoreordetzetan jaso ahal dira. Interesatuak instantzia eta dokumentazio multzo bana aurkeztu behar du eskatu nahi dituen plazetarako.

Eskariarekin batera aurkeztutako dokumentuak bi hilabetean izango dituzte gordeta Lehiaketen Atalean, epaimahaiak proposamena egiten duen egunetik hasita, baina proposamen horren kontrako errekurtsorik aurkezten bada, dokumentuak gordeta izan beharko dira ebazpen irmoa ematen denera arte.

Beste urtebete igarotzen bada eta interesatuak ez badira aipatutako dokumentuak hartzera joan, unibertsitateak dokumentuak suntsitu egin ahal izango ditu

**la Tesorería General de la Seguridad Social donde conste el nombre del centro (empresa) y el período de alta. Deberá adjuntarse también la certificación comprensiva de las materias impartidas.**

**La experiencia profesional se acreditará, con carácter general, de la siguiente forma:**

- **Cuando se trate de experiencia profesional por cuenta ajena en el sector privado mediante la copia del contrato de trabajo y certificación de la Tesorería General de la Seguridad Social. Se acompañará certificado de la empresa en el que se expliquen los puestos y labores realizadas. Cuando se trate de actividad profesional por cuenta ajena en el sector público se acreditará mediante certificado expedido por la Administración en la que la candidata o el candidato preste servicios en la que se ponga de manifiesto el trabajo realizado por la misma o el mismo.**
- **Cuando se trate de experiencia profesional por cuenta propia mediante declaración jurada de las actividades realizadas y la certificación de la Hacienda correspondiente con los períodos de alta en el Impuesto de Actividades Económicas. Además de lo anterior resultará necesario aportar documentación justificativa de los trabajos efectivamente realizados (declaraciones de IVA por ejemplo).**

**Una vez cerrado el plazo de admisión de solicitudes, no se volverá a abrir plazo alguno para presentar méritos o justificar los expuestos.**

3.- Plazos de presentación.

Los modelos de instancia-currículum serán facilitados en el Rectorado y Vicerrectorados de Campus, y deberá presentarse una instancia y documentación por cada plaza a la que se concurse.

Los documentos que acompañen a la solicitud permaneceran depositados en la Sección de Concursos durante un plazo de dos meses desde la fecha de la propuesta de la Comisión,salvo que se interponga algún recurso, en cuyo caso el depósito continuará hasta que haya resolución firme.

Transcurrido un año adicional sin que las interesadas/os hubieran retirado dicha documentación , la universidad podrá disponer su destrucción.

Eskariak aurkezteko epea **2019ko ekainaren 22tik 2019ko uztailaren 12ra** bitartekoa da; eskariok UPV/EHUko Erregistro Orokorretan aurkeztu behar dira, edo, bestela, UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartutako arautegian, hau da, Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegian, zehaztutako beste edozein bide erabilita (ekainaren 18ko EHAA). Araudi horren bidez garatu egiten da urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio publikoen eta administrazio prozedura erkidearenak (azaroaren 1eko EBO), zehaztutakoa.

El plazo de presentación de instancias comprenderá desde el **22 de junio de 2019 hasta el 12 de julio de 2019, ambos incluidos** y deberán presentarse los Registros Generales de la UPV/EHU, o por cualquiera de los medios establecidos en el Acuerdo de 16 de mayo de 2012, del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Registro General y de Creación del Registro Electrónico de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea (BOPV de 18 de junio). Dicho reglamento desarrolla la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas (BOE de 1 de octubre)..

UPV/EHUko Erregistro Orokorreko bulegoak zehaztuta daude UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2012ko maiatzaren 16an onartutako arautegiko, hau da, Erregistro Orokorraren Antolaketa eta Funtzionamendurako eta Erregistro Elektronikoa Sortzeko Arautegiko, I. eranskinean. Erregistroko bulegoen zerrenda hori jendaurrean egongo da UPV/EHUko ikastegietako idazkaritzetan Errektoregoko bulegoetan, Bilboko Larrako Etxekoan, Arabako Campuseko Errektoreordetzan eta Donostiako Ignacio Mª Barriola Ikasgelategian. Interneten ere eskuratu ahal izango da: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html.

Las oficinas del Registro General de la UPV/EHU vienen relacionadas en el Anexo I del Acuerdo de 16 de mayo de 2012, del Consejo de Gobierno de la UPV/EHU, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento del Registro General y de Creación del Registro Electrónico de la Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea. Dicha relación estará a disposición del público en las Secretarías de los centros de la UPV/EHU, así como en las oficinas del Rectorado de Leioa, Larrako Etxea de Bilbao, Vicerrectorado de Campus de Álava en Vitoria y Aulario Ignacio M.ª. Barriola de Donostia-San Sebastián. Asimismo, puede consultarse en la siguiente dirección de Internet: http://www.ehu.es/oficinas_registro.html.

UPV/EHUko erregistro orokorren ordutegia, guztietako:
Astelehenetik ostegunera, 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 16:30era.
Ostiraletan, udako lanaldian eta Aste Santuko eta Gabonetako txandetan 9:00etatik 13:00etara.
Urte osoko larunbat eta igandeetan, jaiegunetan, campus eta ikastegi bakoitzeko jaiegunetan, erregistro orokorreko bulegoak itxita egongo dira.
Epeetan egun baliodunak zehazteko, kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko jaiegunen egutegi ofiziala, bai eta unibertsitatearena berarena ere.

El horario de las oficinas del Registro General de la UPV/EHU, común a todas ellas, es el siguiente:
De lunes a jueves de 09:00 a 13:00 y de 15:00 a 16:30.
Los viernes, durante la jornada continua de verano, y turnos de Semana Santa y Navidad:
De 09:00 a 13:00.
Durante los sábados y domingos de todo el año, los días declarados festivos y las festividades específicas de cada Campus y Centro, las oficinas del Registro General permanecerán cerradas.
En todo caso, se tendrá en cuenta el Calendario Oficial de Fiestas Laborales de la Comunidad Autónoma de Euskadi y de la propia Universidad a efectos de los días inhábiles en el cómputo de plazos.

Erregistro Orokorraren bulegoek, aipaturiko zirkularrak dioena ikusita, ohar bat jarriko dute,

Cada oficina de Registro General publicará, en lugar visible, los días festivos y los de atención al

toki agerian, jakinarazteko zeintzuk izango diren jaiegunak eta goizeko ordutegia izango dutenak.

público en horario de mañana

Eskariak posta bulegoetan aurkeztuko duten interesatuek, posta zerbitzuen eskaintzeko modua arautzen duen abenduaren 3ko 1829/1999 Errege Dekretuko 31. artikuluak jasotzen duen eran egin beharko dute, honela diolarik:

Las interesadas y los interesados que presenten su instancia en las oficinas de correos deberán hacerlo en la forma que establece el artículo 31 del Real Decreto 1829/1999, de 3 de diciembre, que aprueba el Reglamento por el que se regula la prestación de servicios postales, estableciendo lo siguiente:

*"Herritarrek edo erakundeek posta zerbitzu orokorra erabiltzen dutenean administrazio publikoei eskariak, idatziak eta jakinarazpenak bidaltzeko, gutun azala irekita aurkeztu beharko dute posta bulegoan, bidali nahi duten dokumentuaren lehen orriko goiburuan posta zerbitzukoek argi eta garbi adieraz ditzaten bulegoaren izena eta bidalketaren lekua, eguna, ordua eta minutua. Era berean, igorleak eska dezake bidalketaren xehetasunak agertzea bidali nahi den dokumentu nagusiaren kopiaren, fotokopiaren edo erreprodukzioaren lehenengo orrian, postako langileak jatorrizkoa eta kopia erkatu eta berdinak direla egiaztatu ondoren; fotokopia hori ziurtagiri gisa aurkeztuko zaio administrazioko organo eskudunari, dokumentu nagusia aurkeztu egin dela frogatzeko.*

*" Las solicitudes, escritos y comunicaciones que los ciudadanos o entidades dirijan a los órganos de las Administraciones Públicas, a través del operador al que se le ha encomendado la prestación del servicio postal universal, se presentarán en sobre abierto, con objeto de que en la cabecera de la primera hoja del documento que se quiera enviar, se hagan constar, con claridad, el nombre de la oficina y la fecha, el lugar, la hora y minuto de su admisión. El remitente también podrá exigir que se hagan constar las circunstancias del envío, previa comparación de su identidad con el original, en la primera página de la copia, fotocopia u otro tipo de reproducción del documento principal que se quiera enviar, que deberá aportarse como forma de recibo que acredite la presentación de aquél ante el órgano administrativo competente.*

*Aipaturiko diligentziak egin ostean, igorleak berak itxiko du gutun azala, eta enplegatuak onarpena formalizatu eta onarpenaren gordekina emango dio; jatorrizkoa, berriz, bulegoan artxibatuko du.*

*Practicadas las diligencias indicadas, el propio remitente cerrará el sobre, y el empleado formalizará y entregará el resguardo de admisión, cuya matriz archivará en la oficina.*

*Posta zerbitzu orokorraren bidez artikulu honetan zehaztutako moduan egiten diren bidalketak behar bezala bidalitakotzat joko dira, urriaren 1eko Herri Administrazioen eta Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeko 16. artikuluaren arabera. [gaztelaniaz jatorrizkoan]."*

*Los envíos aceptados por el operador al que se encomienda la prestación del servicio postal universal, siguiendo las formalidades previstas en este artículo, se considerarán debidamente presentados, a los efectos previstos en el artículo 16 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas y su normativa de desarrollo."*

Eskaria atzerrian aurkeztuz gero, Espainiak herrialde horretan daukan ordezkaritza diplomatikoan eta kontsuletxean egin beharko da; ez du balio izango atzerriko posta zerbitzuaren bidez bidaltzeak.

Téngase en cuenta, que de presentar la instancia de participación en el concurso en el extranjero, deberá realizarse en la correspondiente representación diplomática u oficina consular de España, no siendo válida la presentada a través de los Servicios Postales en el extranjero.

Curriculum-eskariaren ereduak deialdiaren web orrian eskuratu ahal izango dira, bai eta Errektoregoan eta campuseko errektoreordetzan ere. Lortu nahi den kontratu bakoitzerako curriculum-eskari bat bete beharko da

Los modelos de instancia-currículum serán facilitados a través de la web de la convocatoria o en el Rectorado y Vicerrectorados de Campus, y deberá presentarse una instancia y documentación por cada contrato al que se concurse.

4.- Lehiakide onartuen behin-behineko eta behin betiko zerrendak

4.- Listado provisional y definitivo de personas admitidos.

Eskariak aurkezteko epea amaiturik, Unibertsitateko errektoreak onartu eta ez onartuen behin-behineko zerrenda argitaratuko du, web orrian, Irakasle eta Ikerlarien Lehiaketa Atalean eta Campusetako Errektoreordetzatan. Hamar eguneko epea irekiko da, zerrenda hori Irakasle eta Ikerlarien Lehiaketa Atalean argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera, errakuntzak zuzentzeko, bai eta zerrenda horren kontrako erreklamazioak aurkezteko ere. Behin epe hori bukatuta, zerrenda hori behin betikoa izango da eta haren kontra berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da hilabeteko epean, edo, zuzenean, bi hilabeteko epean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa. Epea zabalduko da Irakasle eta Ikertzaileen Lehiaketa Atalean argitaratzen den egunaren biharamunean.

Finalizado el plazo de admisión de instancias, el Rector de la Universidad hará pública en la Sección de Concursos y en los Vicerrectorados de Campus la lista provisional de concursantes admitidos y excluidos , abriéndose un plazo de diez días, a partir de la fecha de publicación de dicha lista, para subsanación de errores, así como para presentar reclamación contra la misma, transcurrido el cual el listado se elevará a definitivo, cabiendo contra este último recurso de reposición ante el Rector en el plazo de un mes o directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de Bilbao correspondiente en el plazo de dos meses.

Lehiaketa prozesuaren edozein unetan administrazioak lehiakideren batek parte hartzeko baldintzaren bat betetzen ez duela ikusiko balu, lehiakideari 5 egun emango lizkioke dagokion dokumentazioa aurkeztu dezan. Horrela ez egitekotan behin betiko baztertua geldituko da. Dena dela, eskariak aurkezteko epea amaitu aurretik bete beharko dira baldintzak beti.

Si en cualquier momento del procedimiento selectivo por la Administración convocante se comprobase que algún aspirante carece de alguno de los requisitos exigidos para concurrir, se le concederán 5 días para aportar la pertinente acreditación documental. De no hacerlo así, quedará definitivamente excluido. En cualquier caso el cumplimiento de los requisitos deberá estar referido siempre a la fecha de expiración del plazo fijado para solicitar la participación en el concurso.

5.- Epaimahaiak eta merezimenduen baremoa

5.- Comisiones Evaluadoras y baremo de méritos.

Lehiaketak ebaluatu eta kalifikatuko dituzten epaimahaiak eratuko dira kontuan hartuta xedatutakoa Euskal Unibertsitate Sistemari buruzko otsailaren 25eko 3/2004 Legean eta irakasleen ordezkoak egiteko zerrendak gestionatzeko irizpideei buruzko arautegian. Erabiliko dira arautegi horretan jasotako baremoa eta irizpideak, bai eta aldi baterako irakasle eta ikertzaileak kontratatzeko arautegian jasotakoak ere (UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak 2011ko martxoaren 10eko bileran onartua, 2011ko martxoaren 25eko EHAAn argitaratua), bat etorrita arautegi horretan aipatzen diren irizpide orokor eta espezifikoekin.

Los Concursos serán juzgados y valorados por las correspondientes Comisiones de Evaluación establecidas por la Ley 3/2004, de 25 de febrero, del Sistema Universitario Vasco y el reglamento para la gestión de la lista de candidatas y candidatos a sustituciones, utilizando el baremo y criterios recogidos en la citada normativa así como en la regulación para la selección y contratación de personal docente e investigador temporal, aprobado por el Consejo de Gobierno de la UPV/EHU en sesión de 10 de marzo de 2011 (B.O.P.V. de 25 de marzo de 2011), conforme a los criterios generales y específicos establecidos en dicha regulación.

6.- Kontratuak egiteko proposamenak

Epaimahaiek ezin izango dute inola ere proposatu lehiaketara ateratako eta euren erabakiaren menpe dagoen kontratu kopurua baino kontratu adjudikazio gehiago.

Lehiaketa hauetako kontratuak betetzeko proposamenak Unibertsitate honetako Lehiaketa Ataleko eta campusetako errektoreordetzetako iragarki tauletan argitaratuko dira.

Proposatutako lehiakideek 3 egun izango dituzte kontratua sinatzeko, lehiaketa euren alde ebatzi dela esaten dien jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita. Epe horretan aurkeztuko ez balira kontratua sinatzera, kasuan kasuko bitarteko irakasle kontratuaren kontratuari uko egin diotela ulertuko da, eta, ondorioz, epaimahaiek proposatutako zerrendako hurrengoari deituko litzaioke, baldin eta halako zerrendarik egin balute.

Oso kasu berezietan, eta Irakasleen Errektoreordetzak hala erabakiko balu, aurreko paragrafoan adierazitako epea luzatu ahal izango litzateke, hamar eguneraino gehienez ere.

Deialdi honi buruzko informazioa Euskal Herriko Unibertsitateko Lehiaketa Atalean eskainiko da, honako helbide honetan: Errektoregoa, 1. solairua, Leioako Campusa (Bizkaia).

7.- Errekurtsoak

Epaimahaiek kontratuak betetzeko egiten dituzten proposamenen kontra gora jotzeko errekurtsoa zuzendu ahal izango zaio unibertsitate honetako errektoreari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, proposamen horiek Lehiaketa Ataleko iragarki tauletan argitaratzen diren egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Dena dela, horrek ez du eragotziko beste edozein motatako errekurtsoa jartzea. Gorako errekurtsoen berri web orriaren bidez emango zaie interesdunei.

Deialdi honen kontra aukerako berraztertze errekurtsoa zuzendu ahal izango zaio errektoreari,

6.- Propuestas de contratación.

En ningún caso las Comisiones Evaluadoras podrán proponer mayor número de adjudicaciones de contratos que el de contratos convocados y asignados a su actuación.

Las propuestas de provisión de contratos de este concurso se publicarán en los tablones de anuncios de la Sección de Concursos de esta Universidad y Vicerrectorados de Campus.

Las y los aspirantes propuestos dispondrán de un plazo de 3 días a partir del siguiente a aquel en que les sea notificada la resolución del concurso con propuesta en su favor para formalizar el correspondiente contrato. En el supuesto de que en el referido plazo no se presentaran para la formalización del contrato, se entenderá que renuncian al contrato de profesorado contratado interino y, en consecuencia, se procederá al llamamiento de la siguiente o el siguiente aspirante que figure en la prelación de suplentes que las Comisiones Evaluadoras hayan, en su caso, establecido.

En atención a circunstancias excepcionales cuya concurrencia corresponde apreciar al Vicerrectorado de Profesorado el plazo al que se refiere el apartado anterior podrá ser prorrogado hasta un máximo de diez días.

La información referente a esta convocatoria, será facilitada en la Sección de Concursos de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, Edificio Rectorado, 1era planta, Campus de Leioa (Bizkaia).

7.- Recursos.

Contra las propuestas de provisión de contratos emanadas de las Comisiones de Evaluación, las interesadas y los interesados podrán interponer recurso de alzada ante el Rector de esta Universidad, en el plazo de un mes a partir del día siguiente en que sean publicadas dichas propuestas en el tablón de anuncios de la Sección de Concursos, sin perjuicio de que puedan ejercitar, en su caso, cualquier otro que estimen procedente. La interposición de un recurso de alzada se anunciará, a las posibles interesadas y a los posibles interesados, en la página web de la Universidad.

Contra la presente convocatoria cabe la interposición de recurso potestativo de reposición,

Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea
NAZIOARTEKO BIKAINTASUN CAMPUSA / CAMPUS DE EXCELENCIA INTERNACIONAL

hilabeteko epean; bestela, zuzenean jarri ahal izango da administrazioarekiko auzi errekurtsoa jurisdikzio horretan eskumena duen epaitegian, eta horretarako epea bi hilabetekoa izango da lehiaketa argitaratu eta biharamunetik kontatzen hasita.

Leioan, 2019ko ekainaren 21ean.

ante el Rector, en el plazo de un mes, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante el Juzgado competente de dicha jurisdicción, en el plazo de dos meses, a partir del día siguiente al de su publicación.

Leioa, a 21 de junio de 2019.

ERREKTOREA / LA RECTORA
Eskumenak eskuordetuta (errektorearen 2017 ko urtarrilaren 25eko Erabakia, 17/02/3ko EHAA), Irakasle-ikertzaileen arloko errektoreordea / P.D. (Resolución Rectoral de 25 de Enero de 2017, BOPV 3/02/2017) La Vicerrectora de Personal Docente e Investigador

Izptua.: / Fdo.: Inmaculada Guerricagoitia Marina